

EBALUAZIO IRIZPIDEAK -ERLIJIO KATOLIKOA

LEHEN ZIKLOKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Adiskidetasun-harremanak balioestea eta errespetatzea.
- Laguntasun ona sustatzen duten ekintzak aipatzea.
- Lagunekiko eta familiarekiko portaera dela eta, ekintza egokiak eta desegokiak bereiztea.
- Bibliako istorioen sekuentziak hurrenkera egokian antolatzea.
- Gabonen berezko ezaugarriak eta sinboloak ezagutzea.
- Natura zaintzea eta errespetatzea.
- Ura eta bizitza lotzea.
- Lagun onak izaten laguntzen diguten ekintzak eta jarrerak adierazten dituzten hitzak identifikatzea.
- Jesusen hamabi lagunak ezagutzea: apostoluak.
- Guk besteak zaintzearen eta besteek gu zaintzearen garrantzia balioestea.
- Nork bere ekintzei buruz gogoeta egitea, pertsona hobea izateko.
- Eliza bat ezagutzea eta liturgiako zenbait elementu identifikatzea eta zuzen idaztea.
- Bataioaren esanahia azaltzea.
 - Taldeko elkarrizketetan eta jardueretan modu aktiboan parte hartzea.
 - Konfiantza-jarrerak identifikatzea eta hazkunde pertsonalerako balioestea.
 - Jesusen jaiotzaren eta Errege Magoen jaurespenaren kontakizuna modu ordenatuan eta koherentean azaltzea.
 - Bere inguruneke jaietan erlijio-sinbolo batzuk kokatzen jakitea..
 - Maitasunaren agindua zertan datzan azaltzea, eta bizitza-ereduetan deskribatzea.
 - Era askotako erlijio-praktikak eta kultuari eta konpromisoari dagokienez duten zentzua deskribatzea eta errespetatzea.
 - Aste Santuko ospakizunen zergatia eta kristau-jaiaren ospakizun-izaera azaltzea.
 - Eukaristia kristauen ospakizun garrantzitsuena dela identifikatzea.
 - Oturuntzaren parabolatik ondorioak ateratzea.
 - Ideia onak partekatuz jarduteko gai izatea eta gatazkak konpontzeko moduak aurkitzea.
 - Taldeko jardueretan modu aktiboan parte hartzea.

BIGARREN ZIKLOKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Erlijio monoteisten sortzaileak bereiztea; Jainkoarekiko harremana, gizakiekiko konpromisoa eta ekintza salbatzailea alderatzea
- Jesusen ekintza salbatzaileak mirari, heriotz eta piztuerari buruzko Bibliako zer aiputan dauden esatea.
- Sarbide-, Adiskidetzeta- eta Eukaristia-sakramentuak bereiztea eta lotzea.
- Betiko bizitza aipatzen duten Ebanjelioko hainbat testuren esanahia azaltzea.
- Nork bere izaera ezagutzea eta balioestea. Haraindikotasunari bide egiten ikastea.
- Konfiantza norengan duten esatea.
- Kristauek benetako Gabonak bizitzeko dituzten balioak ezagutzea eta errespetatzea
- Adiskidetasuna sortzeko zer jarrera behar diren adieraztea.
- Besteak onartzeko eta baztertzeko jarrerak bereiztea
- Enpatia zer den jakitea.
- Kristauren Pazkoaren esanahia ezagutzea
- Bizitza eskertzeko jarrerak agertzea.
- Bizikidetzeta hobetzeko arauen garrantziaz jabetzea.
- Parabolak irakurtzea, mezua eta pertsonaien sinbologia ulertzea eta gertuko kasuren batean ikasbidea aplikatzen jakitea.
- Jarreraz aldatzeko eta beste aukera batzuk emateko ahalegina egitea.
- Aste Santuko egunak ordenatzen jakitea eta Jesusen bizitzako gertaera nagusiak idaztea.
- Lagun hurkoarenganako maitasuna adierazten duten ekintzak ezagutzea.
- Sakramentuetan zer sinbolo dagoen, nork parte hartzen duen eta zer gertatzen den identifikatzea.

HIRUGARREN ZIKLOKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Identifikatzen ditu antzinateko erlijio-gertakariaren zeinu eta sinbolo adierazgarri batzuk.
- Erlazionatzen ditu gaur egungo erlijio nagusiak, eta aurkitzen ditu antzekotasun eta desberdintasun nagusiak.
- Iruzkintzen ditu Itun Berriko zenbait testu, Jesu Kristoren gizatiartasunaz eta jainkotasunaz dihardutenak.
- Arrazoitzen du askatasunaren norberaren ekintzen gaineko erantzukizunaren balioa.
- Adierazten eta aintzat hartzen ditu erlijio guztien balioak eta kulturari egindako ekarpena.
- Interpretatzen du arte erlijiosoaren esanahi transzendentea, eta bereizten ditu jai zibilak eta kristau-jaiak.
- Balioesten ditu arbasoen sinesmenak, bere udalerriko kultura-ondareko lanetan adieraziak.
- Errespetatu egiten ditu Jainkoaren existentziaren aurreko jarrera guztiak.
- Identifikatzen du uraren sinboloa Bataioan.
- Ezagutzen du Jesusek samariarrarekin topo egin zuenekoari buruzko Bibliako kontakizuna.
- Badaki Jesus dela Israel herriaren historiako Mesias Salbatzailea.
- Badaki nor izan ziren Jesusen ikasleak eta zein izan zen haien misioa.
- Konturatzen da barkatzeko eta barkatua izateko beharraz.
- Badaki zein den Eukaristiaren Sakramentuaren erritu nagusien hurrenkera.
- Aztertzen ditu erlijio-elementuak gogora ekartzen dituzten hainbat pintura, eta ulertzen du haien esanahia.
- Identifikatzen du uraren sinboloa Bataioan.
- Ezagutzen ditu historiaurreko eta antzinako Mesopotamiako, Egiptoko, Greziako eta Erromako erlijioen sinesmen nagusiak, jainkoak, leku eta erritu sakratuak.
- Badaki zein diren hinduismoaren, budismoaren eta islamaren ezaugarri nagusiak.
- Ulertzen du Gabonetako ekintzen eta ohituren esanahi sakona.